

**OSAKIDETZAKO ENTE PUBLIKOKO POSTU FUNTZIONALAK ARAUTZEN  
DITUEN UZTAILAK 19KO 186/2005 DEKRETUAN ESKATUTAKO TITULAZIOA,  
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEAREN POSTU FUNTZIONALERAKO**

ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA ETA ERABILTZAILEAREKIKO ARRETA  
Administrazio Kudeaketako Teknikaria, Titulazio Baliokidea \*

**POSTU FUNTZIONALEN DEKRETUAN ADMINISTRARI LAGUNTZAILEAREN  
ETA ERABILTZAILEAREKIKO ARRETAREN POSTU FUNTZIONALERAKO  
EZARRITAKOEN TITULAZIO BALIOKIDEAK**

**TEKNIKARI LAGUNTZAILEA, 14/1970 LEGE OROKORRARENA**, abuztuaren 4koa,  
Hezkuntzako eta Hezkuntzako Erreformako Finantzazioaren gainekoa.

**TEKNIKARI LAGUNTZAILEA (LEHEN MAILAKO LH ETA II. MAILAKO  
MODULU ESPERIMENTALAK), 1/1990 LEGE ORGANIKOARENA**, urriaren 3koa,  
Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrekoa.

**TEKNIKARIA DAGOKION LANBIDEAN, 777/1998 ERREGE DEKRETUARENA**  
(dagokigun kasuan, ADMINISTRAZIO KUDEAKETAKO TEKNIKARIA).

Eskola Graduatuko titulua.

Eliza-ikasketetan Humanitateetako 6 ikasturte eta gutxienez Filosofiako bat, edo  
Humanitateetako 5 eta, gutxienez, Filosofiako 2.

Unibertsitaterako 25 urte baino nagusigoentzako sarrera-proba gainditzea.

**Hurrengoetarako sarrera-proba gainditzea:**

- erdi edo goi mailako arte plastiko eta diseinuko ikasketa profesionalak,
- erdi edo goi mailako lanbide heziketa,
- erdi edo goi mailako kirol ikasketak,
- 19 urte baino nagusigoentzako goi mailako ikasketa artistikoak

**eta hurrengo eskakizunetariko bat egiaztatzea:**

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen bi ikasturteetako ikasgai guztiak gainditzea,
- erdi mailako heziketa zikloa egitea eta heziketa zikloaren iraupena kontuan izanik, iraupen horren erdiari, gutxienez, dagozkion modulu profesionalen kopurua gainditzea,
- goi mailako zikloa egitea eta heziketa zikloaren iraupena kontuan izanik, iraupen horren herenari, gutxienez, dagozkion modulu profesionalen kopurua gainditzea,
- goi mailako ikasketa artistikoen 10 kreditu ECTS gainditzea (kontuan izan EDU/520/2011 Aginduaren idazketaren arabera EDU/1603/2009 Aginduaren 5. Xedapen Gehigarria.
- DBHko hirugarren mailara sartzeko Espainiako hezkuntza sisteman eskatzen denarekin baliokidea den eskolartasuna dakarten atzerriko ikasketak egiaztatzea,
- Helduentzako bigarren hezkuntzako I. mailako esparru guztiak gainditzea.

**Oinarrizko Batxilergoko edozein titulu edo hurrengoak gainditzea:**

- a) Batxilergoko lau ikasturte oso, multzo-probarik edo errebalidarik gabekoak, abuztuaren 4ko 14/1970 Legea baino lehenagoko edozein ikasketa-planarekin.
- b) Batxilergo Tekniko edo Laneko Batxilergoko bost urte, multzo-probarik edo errebalidarik gabe,
- c) Eliza-ikasketen Humanitateetako lau ikasturte oso

17/07/1945 Legetik eta 21/12/1965 Legetik eratorritako Lehen mailako ikasketen egiaztagiria

Lehen mailako egiaztagiria lortzeko beharrezko eskakizunak bete izana egiaztatzea

\* Dokumentazioa egiaztatuko duen Hezkuntza administrazioak Ebazpen indibidualizatua eman beharko du.

*Hezkuntzako maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa (2006ko maiatzaren 4ko EAO), EDU/1603/2009 Agindua, Hezkuntzako Lege Organikoak (EDU/520/2011 Aginduak aldatutakoak) araututako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatuko eta Batxilergoko tituluekin baliokideak ezartzen dituen.*